

ARTISTAK BILATZEKO IZARRAK PLAZARA EKIMENEAN IZENA EMATEKO EPEA IREKI DA

5 ETA 17 URTE BITARTEKOEK PARTE HAR DEZAKETE

Izen-emate epea: **Otsailak 15 – Martxoak 17**

Izarrak Plazara **5-17 urte** bitartekoei zuzendutako ekimena da, artistak bilatzeko ekimena, eta beraz, **musika tresnak jotzea, kantatzea, dantzatzea, antzerkia** egitea, **txisteak** kontatzea, **bertsoak** kantatzea, **magia** egitea, **zirku** ikuskizunak eskaintzea... gogoko dutenek hementxe dute aukera. Ekimen honen helburu nagusia gazteen **sormen artistikoa** sustatzea da, eta aldi berean, elkarrekin **euskaraz** ongi pasatzea.

Izarrak Plazara 2012. urtean sortu zen Intxaurrendoko Plazara Goaz euskara elkarrearen ekimenez, auzoko Kultur Etxeak lagunduta (Donostia Kultura) eta beste erakunde batzuen babesarekin. Iaztik Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarrekin, Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Donostiako Udaleko Gazteria Sailak dute ekimenaren ardura, eta emanaldi nagusiak Olatu Talka jaialdiaren baitan egingo dira.

Ekimena bi kategoriatan banatuko da, adinaren arabera: 5-11 urte bitartekoak (2007-2012 urteen artean jaiotakoak, biak barne) eta 12-17 urte bitartekoak (2000-2006 urteak). Partaideek **taldeka** edo **bakarka** aurkezteko aukera izango dute eta ikuskizun originala edo moldatua izan daiteke. Ikuskizunak gehienez 5 minutukoak izango dira eta euskaraz izan beharko dute. Ahalak erakusteko musika lagungarri gisa erabiliz gero, esaterako, dantza egiteko, musika lagungarri hori edozein hizkuntzatan izan ahalko da, eta euskaraz izatea hobetsiko da.

12-17 urteko gaztetxoek martxoaren 17ra arteko epea izango dute izen emateko, eta hori www.olatutalka.eus webgunearen bidez egin beharko dute. Izena ematen dutenek casting bat egin beharko dute apirilaren 13an Kontadoresen, eta horietatik, emanaldi nagusirako 6 bakarlari edo talde aukeratuko dira. Emanaldi nagusi hori Olatu Talka jaialdiaren baitan egingo dute, maiatzaren 27an. Castingean aukeratutakoek aditu talde baten laguntzaz euren ikuskizunak hobetu ahal izango dituzte. **Adituak** hauek izango dira: **Ainhoa Aierbe** aktorea, **Jabi Rodil** musikaria eta **Edu Muruamendiaraz** dantzaria. Tailer horiek, Kontadoresen egingo dira apirilaren 27tik maiatzaren 19ra bitartean, antolatzaileek zehaztutako egun eta orduetan.

Bestalde, **5-11 urte bitarteko partaideek ere martxoaren 17ra arteko epea** izango dute izen emateko, baina horretarako Donostiako Haurtxokoetara jo beharko dute. Parte-hartzaileek entseguak izango dituzte antolatzaileek zehaztutakoan, euren emanaldia behar bezala prestatu ahal izateko, eta maiatzaren 26an Larratxo Kultur Etxean egingo dute azken emanaldian.

Partaide guztiek gurasoen edo tutoreen baimen sinatua eraman beharko dute castingaren egunean edo entsegu egunetan (baimen inprimakia Olatu Talkaren webgunean dago). Informazio gehiago: www.olatutalka.eus webgunean eta Bagera Elkartean bagera@bagera.eus helbidean edo 943 005 074 telefono zenbakira deituz.